

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Kanpo elkarteei dagokienez, gure enpresaren eta hornitzaileen arteko harremanak finkatu eta sustatzea beharrezkotzat jotzen dugu, materialen eskuragarritasuna modu eraginkor batean bermatzeko. Hori dela eta, hornitzaileekin izango ditugun harremanak zaintzea ezinbesteko dela deritzogu.

Aliantza mota hauetan gure jarduera aurrera eramateko beharrezkoak ditugun baliabideen eskuragarritasuna bermatzea lortzen dugu. Horretarako, Información y Servicios de Samatel Rioja S.A enpresarekin harremanak estutzea dugu helburu, gure hornitzaile nagusia delako. Beharrezkoa izango da teknologian aditua den enpresa bat, esku muturrekoaren atal teknologikoa kudeatzeko, adibidez: taupadak neurtzeko gailuak, larrialdi egoerako deiak egiteko aparatua eta mugikorra edo ordenagailura konektatzen duen funtzionamendua bermatzeko

beste atal guztiak berriz, beste enpresak Prixton da eta enpresa hori kanpoko itxuraz bakarrik arduratuko da. Modu horretan, gure negozioak izan ahal dituen arriskuak murrizten dira eta baliabideak modu erraz batean eskuratzeko.

Gure produktuaren kantitate jakin bat ekoizteko, metodo eraginkorrena hasieran kantitate murriztua ekoiztea izango litzateke, ondoren, eskaria hazten bada, ekoizpena proportzionalki igoko genuke. Produktuaren garrioiari dagokionez, Masetrans Araba, S.L. enpresa aukera egoki bat izango litzateke. Aurretik esan dugunez, gure produktua farmazietan saltzea gustatuko liguke.

Bestetik, gure produktua Osasun Publikoaren zentzoei eta auzoetako farmaziei eskeini ahal izango genieke eta osasun profesionalek biztanleen jarraipena edukiko lukete modu eroso eta konplexua batean. Modu horretan, negozio-eredua optimizatzea lortuko genuke eta bezero-potentziala igoko litzateke.

Horrez gain, beste enpresa pribaturekin egin dezakegu elkarte, adibidez zahar etxeekin eta osasun pribatuko elkarteekin ere.



